


Abendu aldia 2010

ZATOZ!

Argitan ibili gaitezan



I gida

Bihotza prestatu...

Zatoz, Jesus,
gure artean zagozala sentitu dagigula,
esaiguzu etorri zarala,
hemen zagozala, ezkutatuta,
argia zarala, hitza zarala,
zatitutako ogia eta sendagaia zarala,
indar askatzailea zarala,
munduaren euskarri dan maitasuna...
baina ez zaitugula ikusi.

Zatoz, Jesus Jauna, lagundu eiguzu Zu aurkitzen.
Gure bila zatoz
baina ez zaitugu ezagutzen
etorkinez edo bidezkoz,
gaixoz, umez edo zaharrez,
edozein zapalketako biktimaz jantzita zatozalako.

Zatoz, Jesus Jauna,
egin gaizuz zure lekuko, hau da,
bete gaizuz zure Espirituaz,
Zeugaz, beste Kristo bat
izan gaitzala. ZATOZ!

Irakurri... ulertu...

Is 2, 1-5

... Berak erakutsiko deuskuz bere bideak... Ez dau herrik herriren aurka ezpatarik jasoko... Zatoz, ibili gaitezan Jaunaren argitan!...

Isaias izango dogu bidelagun Abendu aldian. Zentzunez betetako mezua eskeintzen deusku: itxaropena iragarten dau. Erbestea zama astun bihurtzen danean, gugan nekea areagotzen danean, balio batzuk galtzen doguzanean eta desengainua indartzen danean, indarkeria hedatzen danean eta bidegabekeria nagusitzen danean, profeteak dei egiten deusku: begira gorantz, argi bat dago... Somatzen dot indarrik argira, Jesusengana zabaltzeko, bere aurpegiari begiratzuz? Beragan konfiantza jarriz bakea eta zuzentasuna ikasiko doguz.

Sal 121 “Opa eiozue bakea Jerusalem!”

Salmoak judu baten egundoko poztasuna adierazoten dau, Jaungoikoa benetan dagoalako Jerusalem urian. Urteko erromesaldian israeldarrak tenplura heltzen ziranean, euren aurpegiak argitu egiten ziran Jaungoikoaren uriari begiratzuz. Han, batzarrean, herria batzen zan, basamortuko sasoiaren lez, dendaren inguruan; Jauna goratzen eben eta liskarretan egozan juduek sarreretan egozan auzitegietan aurkitzen eben justizia. “*Shalom*” zan agurra, eta topaketa guztietan azaltzen zan irrika.

Gaurkotu...

Gogoratu dagiguzan Isaiasen testuaren giltza batzuk: bakea, zuzentasuna, argia. Ze egoera ikusten dot ingurura eta mundura begiratzean? Testuko balio honeei dagokienez, zenbateraino dagoz lortuta, edo zelan neurtu daiteke euren porrota? Deiren bat nire jarreretan, jardueretan, konpromisoe-tan... bizi egiteko.

Otoitz egin... begietsi...

Fedea jaso dozuenok, zer egin dozue argiagaz? (Paul Claudel)

Aste honetan, argi baten (kandela baten) aurrean otoitz egin daikegu. Gainerako guztia ilunean egon daitela. Gure iluntasunekin, munduaren iluntasunekin egingo dogu otoitz eta ARGIAren etorrerea irrikatuko dogu... *Goitik egingo deusku ikustaldia Argi batek (Lk 1, 78)*

“Opa eiozue bakea Jerusalemi”

Ez dago bakerik Jerusalemen.

Jerusalenen dagozan armak kontatuko zeunkez?

Esango zeunke zertaz eztabaidatzen daben Jerusalemen? Jerusalem (Bagdad, Euskadi, Islamabad, Somalia...) ez da *bakearen uria*, inguru gatazkatsua baino. Jesusek, gaur ere, negar egiten dau Jerusalem ikusita, bakea ez dalako nagusitzen.

Zatoz, Jesus Jauna! Zeu zara Bakea.

Bakea opatu afrikar kontinenteari, bizirako eta jairako eginda dagozan baina gorrotoa, gerra eta bidegabekeria nagusi dabezan herriei.

Nor egongo da itxaropenaren zain?

Zatoz, Jesus!

Bakea opatu gerran dagozan eta indarkeriaz eta bidegabekeriaz beteta dagozan herriei.

Nork bihurtuko ditu ezpatak golde?

Noiz heziko dira bakerako?

Zatoz, Jesus Jauna, Zeu zara Maitasuna!

Bakea opatu apurtutako familiei, banatuta dagoza Elizei, barruan mina sentitzen dabenei.

Bihotz aldaketa behar dogu, bihotz barria.

Zatoz, Jesus Jauna, Zeu zara Gizon Barria!